

Festa nagusi izan zen zaharren omenaldian

Atzo ospatu zuten herriko erretiratuek urteroko egun handia. Goizetik mezarekin hasi ziren San Pedro parrokian, eta bertan Xabier Andonegi apaizak hainbat aholku eman zien bizitzaz disfrutatzeko. Jarraian Zero Sette akordeoi orkestrak eta Biyak Bat abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuten. Amaitzeko bazkaltzera joan ziren. /4-5



Udazkenari ongi-etorri goxoa eman zion Zabaleta auzoak

■ Saharako Elkartasunaren aldeko Maratoiari buruzko hitzaldia eskaini zen

Urtero legez, Zabaleta auzoko kideek udari agur esan eta udazkenari ongi etorria emateko festa ospatzen dute.

Aurten ez da hauren jolasik egon, baina bai ordea elkartasunaren erakusketa.

Tomas Arruti lasarteoriatarak Saharako Elkartasunaren aldeko Maratoiari buruzko hitzaldia eskaini zuen Tolosako Ion Diaz eta Goio Eizagirreren laguntzaz.

Honetan, Maratoiean bizi zutenaz gain, Saharako errefuxiatuek kanpamentuetan bizi duten egoera, lurraldeko historia zerbait azaldu eta egun nazioarteko herriek duten posizioa agertu zuten.

Hitzaldiaren ostean, sardinjana paregabeaz gozatu zuten guztiek. •



Doinu portugaldarrak

Larunbatean Ama Brigitarren-komentura hurbildu ziren lasarteoriatarrek *Calçada Romana* abesbatzaren emanaldia entzuteko aukera izan zuten. Portugalgo abesbatzak Bach edo Pergolesiren doinu sakroak eta haien lurraldeko abesti herrikoak eskaini zituen kontzertuan. Bukaearen, entzuleek txalo zaparrada eskaini eta *Alboka* abesbatzeko kideek makila eta lore sorta eman zioten zuzendariori. Izan ere, *Calçada Romana* Abesbatzaren kontzertua, Portugalgo eta Lasarte-Oriako abesbatzek egingo duten elkartrukearen lehenengo kontzertua baita. •



KIROLA /2

Herriko areto-futboleko txapelketa asteburu honetan hasi da

GIZARTEA /3

Oriatarrek San Sebastian medikua omenduko dute

KULTURA /6

Okendo Zinema Taldea berriro ere martxan



JUAN IRAOLA
E HIJOS S.L.

ITURGINTZA

ITURGINTZA

BEROKUNTZA



lñigo de Loiola Kalea 8 behea
administracion@iraola.eu
Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679

GASA

Herriko areto-futboleko txapelketa abian da

■ Lehiaketako lehenengo jardunaldia burutu zen asteburuan ■ Ostiraletan jokatuko dira partidak

TXINTXARRI

Ostadar Kirol fundazioak antolatzen duen areto-futbol txapelketa herrikoari asteburu honetan eman zaio hasiera.

XXVII. txapelketa honetako denboraldiko berrikuntza nagusia ostiraletan lehenengo partida jokatuko dela da.

“Proba bezala ostiraletan jokatuko da jardunaldiko lehenengo partida eta ongi badoa horrela jarraituko dugu,” azaldu digu Txusek txapelketako antolatzaileak.

Lehiaketa sistema

22 taldek eman dute izena. “Iazko talde berak eman dute izena, ez da talde berririk sartu. Batzuk babeslea aldatu dute, baina ez dago talde berririk,” azaldu digu Txusek.

Honela, lehenengo fasea “jardunaldi bakoitzean hamaika partida egongo dira, liga sistema jarraituz jokatuko da eta itzuli batera, gainera,” adierazi digu.

Bestalde, bigarren fasean, taldeak hiru ligatan banatuko dira, play-offa, ligila eta kontsolazio liga, sailkapenaren arabera.

Lehenengo 8 taldeek play-offean parte hartuko dute. Hauek final laurdenak eta finalaurrekoak joan etorrian jokatuko dituzte eta maiatzaren 21an, finala jokatuko da.

Bestalde ligila dago. Honetan, 9. taldetik 16.era egongo dira lehian. Hauek final laurdenak, final erdiak eta finala jokatuko dituzte, guztiak partida bakarrera.

Azkenik, kontsolazioa dago. Azken taldeak bi taldeetan banatu eta liga modura jokatuko dute. Bi lehenek finala jokatuko dute.

Berrikuntzak

Arestian aipatu legez, berrikuntza nagusia, jardunaldiko lehenengo partida ostiraletan jokatuko dela da.

Baina ez da hori aldeketa bakarra, Txusek azaldu digu-



Obelix eta Lekuona Mena taldeek jokatuko zuten ostiraletan Aretu-futbol herrikoiko XXVII. txapelketako lehenengo partida.

naren arabera, “aurten arau aldaketa bat egin dugu eta areto-futboleko jokalarien antzera, futboleko federatuak dauden jokalariek ere parte hartu dezaket txapelketan.”

Honetaz gain, kirol gune-ko areto-futboleko eremu berriztatuan jokatuko dute. “Gunea estali ostean, eurirekin arazorik ez egotea espero dugu,” aipatu digu.

Era berean, “iazko txapelketaren antzera, guztia ongi ateratzea espero dugu, taldeak era garbian jokatzea eta arazorik eta zigor handirik ez egotea,” adierazi du Txusek. •

Kirolerako oharrak

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar K.F.-ko Futbol Eskola aste honetan jartzen da martxan.

Eskolako jokalariek asteazkenean, urriaren 7an, 17:30ean Michelingo futbol zelaietan egon behar dute kirol arroparekin.

Entrenamenduak asteazkenean 17:45ean izango dira eta ordu beteko iraupena izango dute.



72,8 kiloko hegialburra harrapatu dute Kantauri Itsasoan

Patxi Unanue eta Begoña Lumberras, Bizker Imprimatze digitala dendako senar-emazteak 72,8 kiloko hegialburra harrapatu zuten lehengo asteburuan.

Arrantzale iaioek udan lau alditan saiatu dira eta azkenean honetan lortu dute saria.

Arrantza egun paregabea

Haiek azaldu digutenez, igandean goiz jaiki eta Getariako portutik atera ziren.

“Ontzi pila zegoen eta eguraldi paregabe egiten zuen arrantzarako,” azaldu digute. Gainera, arrantzailekuan izurde eta hegialburu pila zegoela ere azpimarratu zuten.

“Hamabiak aldera hegialburuak amua heldu zuen eta borroka latza izan genuen ateratzeko,” aipatu digute.

Saria

Ordu beteko borrokaren ostean, hegialburra ontzira igotzea lortu zuten eta hura sorpresa arrain zaharra ikustean. Ondoko argazkian ikusi daitekeen bezala, ia haien tamainakoa baita hegialburra.

Getariara bueltatzean, guztiak zain zituzten. Bertan, pisatu, 72,8 kilo zituela jakin eta argazkiak atera zituzten. Izan ere, horren ostean, Vitto-rreren lonjara eraman baitzuten zatitzeko. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

San Sebastian medikua omenduko dute Oriatarrek

■ Urriaren 18an ospatuko dute Oria auzoko bizilagunek urteroko bazkaria

Urtero legez, Oria auzoko bizilagun eta lagunkideak, urriaren 18an, igandean, batuko dira.

Lehenik, meza ospatuko da Oriako Karmengo Amaren elizan eta ostean, guztiak Txixardin Beltxa jatetxera hurbilduko dira bertan bazkaria egin eta urteko bizipenak kontatzeko.

Omenaldia

Aurten gainera, omenaldi bat antolatu dute. Omendua Jose Javier San Sebastian izango da, Oria auzoko mediku praktikantea.


1932ko irailaren 22an Oriako Zelaialde etxean jaio zen Jose Javier.

Bere haurtzaroa eta gaztaroa auzo honetan igaro zituen.

1949. urtetik Brunet fabrikako langilea eta fabrika desagertu ostean, urte askotan, Orian mediku praktikante ibilia dugu Jose Javier, nahiz eta auzoan ez bizi.

“Edozein ordu zela ere, deitu eta auzora etortzen zen gaixoa ikuskatzera,” azaldu digu omenaldiaren antolatzaileetako batek.

Horregatik, urte horietan, Oriatarrei eskainiko borondatezko arreta honek omenaldia ekarri du.



Jose Javier San Sebastian Oriako mediku praktikantea omenduko dute Oriatarrek bazkarian.

Arg.: Marisol Ceca

Txartelak eskuratzeko

Txixardin Beltxa jatetxean ospatuko den bazkarirako txartela eskuratu nahi dutenek

honako telefono zenbakietara deituz baina ez dute, 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol).

Interesatuak txartelak eskuratzeko azken astea dute hau, urriaren 10an bukatzen baita epea. •

MIKOLOGIA HITZALDIA

Perretxiko jangarria ala pozoitsua?

Onddo denboraldia hasi da eta Arrieskalleta elkartean mikologian buruzko hitzaldia antolatu da urriak 7, asteazkenean, 19:30ean.

Honetan, Daniel Palacios mikologian adituak perretxiko jangarri eta pozoitsuen arteko desberdintasunak azalduko ditu.

Hitzaldia gazteleraz izango da eta mikologian zale-tuak edo hasi berriak diren guztiei irekia dago. •

HAUR LIBURUTEGIA

Bihar hasten da Ipuin kontalarien txokoa

Manuel Lekuona Kultur etxe-ko haur liburutegia bihurtu da martxora arte ipuinen mundua bilakatuko da hila-betean behin Pello Añorga eta Koruko Zurutuza ipuin kontalarietako esker.

Ipuinaren orduaren saioak urritik abendura egingo dira eta haurren urteen arabera bi taldeetan banatuko dira.

Honela, Pello Añorgak 4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioak egingo ditu urriaren 6 eta 26an eta azaroaren 9an; 7 eta 9 urte bitarteko haurrentzat, berriz, Koruko Zurutzak urriaren 21, azaroaren 17 eta abenduaren 3an eskainiko ditu bere ipuinak.

Ipuin bat irakurriko dugu? saioan, berriz, Koruko Zurutuza izango da abenduaren 18an, urtarrilaren 27an, otsailaren 24an eta martxoaren 17an egingo dira ipuin irakusketak egingo dituenak.

Saio guztiak 18:00etan hasiko dira puntuan eta honetaz gain, arau batzuk bete behar dira, Ipuinaren orduaren kasuan adinak errespeta-tzea, haurrak bakarrik egotea eta behin ipuina hasi eta gero gelatik ez ateratzea. •

LANAK

Trafikoan eragiten duten aldaketak

Gaurtik aurrera, trafikoan eragiten duten aldaketa berriak egingo dira gure herrian.

Batetik, Loidi-Barren eremu-ko urbanizazio lanak direla eta, Goikale itxiko dute 2 eta 18 zenbakien artean. Urnieta biderantz joateko errotonda berriak sartu behar-ko da eta Beko Kaletik Loidi kalera pasa.

Bestetik, Udaletxeko berrikuntza lanen ondorioz, Hipodromo etorbideko errepidea estutu egingo da. •

Reggae Naiban tabernan

Sergio Somaren eskutik, larunbatean Naiban tabernara gerturatu ziren guztiak Reggae estiloko musika entzuteko aukera izan zuten.

Eskainitako saioan, Soma Djarekin batera bi abeslari egon ziren, soinu hauek era-

kargarriago bihurtuz. Lasarteoriatar ugari bildu zen, eta sesioa irauin zuen bitartean, gorputz estatikorik ez zen ikusi Naiban tabernan.

Jaia, dibertsioa eta dena Jamaikan sortutako musika estilo honi esker.



Eta Karmele? obrak jende mordoak bildu zuen Jalgin

Iraia Eliasek eta Ainhoa Alberdik, Eta Karmele? obra eskaini zuten ostiralean Jalgi kafe-antzekian.

Jende ugari biltzea lortu zuten bi emakumeen arteko elkarriketa umoretsu, eroa eta gazi-gozoa hau erakusteko. Obra honetan aditzera

ematen zaigu pentsamendu zentzudunenetatik egoera absurduenetara pausu txiki bat besterik ez dagoela.

50 minutu irauin zituen antzezlanean, jendea isilik, adikor aurkitu genuen. Eta amaieran, isiltasuna, txaloket soilik apurtu zuten.



Ostegunetik aurrera Okendo Zinema Taldearen eskaintza ikusteko aukera

Kalitatezko filmak ekarriko ditu Okendo Zinema Taldeak

Okendo Zinema Taldeak, udako eternaldia eta gero, zazpigarren artea hurbilduko du berriro Lasarte-Oriara. Kalitatezko zinema eskaintzea da beraien helburu nagusia. 80. hamarkadan hasi ziren proiektu honekin,

stand by-en denboraldi bat tarteka, berriro hemen daude herritarrei hainbat filma eskaintzeko prest. Ostegunean hasiko dira berriro proiektioak Manuel Lekuona Kultur Etxean. Abendura arte hauek izango dira

eskainiko dizkiguten filmak, momentuz Hala ere, itxi gabeko agendan aldaketak egon baitaitezke. Sarrerak 4'15 eurotan salduko dira, prezio ona kalitatezko zinema ikusi ahal izateko.

Urriak 08, 21:30ean

IN SEARCH OF A MIDNIGHT KISS
(MUXU BAT GAUERDIAN)



Wilsonen 29 urte ditu eta Los Angelesera iritsi da. Seguraski, bere bizitzako urterik txarrena ahazteko asmotan. Bere neska lagunarekin utzi du, bere kotxeak botata utzi zuen Arizonan eta ordenagailua lapurtu diote, bertan, lantzen ari zen gidoi batzuk zituelarik. Badirudi bere bizitzak eragingarri bat behar duela, eta Jacob, bere lagun minak, Craig's List-eko kontaktu sailean iragarki pertsonal bat sartzea gomendatzen dio. "Misantropoa misantropo neska ezagutu nahiko luke". Honela hasten da Wilson eta Vivian-en istorioa. Neska ere Texas-ekoa da. Los Angeles-era aktorea izateko asmotan iristen da eta bere mutil laguna utzi berri du.

Azaroak 17, 21:30ean

MAMAN EST CHEZ LE COIFFEUR
(AMA ILE-APAINDEGIAN)



1966ko Uda. Udako oporretaz disfrutatzeke garaia dugu, askatasun osokoa. Zelaletan libreki korrika egiteko aukera, baita lagunekin disfrutatzekeoa. Baina heldutuz dijoa heinena, Elise inguruan dituen pertsonen ametsetaz, tristezieta, gezurretaz konturateraz hasten da. Inongo arrazoirik gabe bere ama alde egiten du, eta horrek familia hankaz gora ustean du. Bere aita, buru-makur ikusiz, Elise familiaren gidaritzaz arduratuko da.

Urriak 22, 21:30ean

DISGRACE
(ZORITXARRA)



David Lurie, dibortziatua dago, Poesia Erromantikoko irakaslea da Hegoafrikako apartheid ondorengoko unibertsitate batean. Bere alaba Lucyren segurtasunaz arduratzen da. Landaren erdian galduak dagoen etxalde batean bizi da. David gizon pribilegiatua da, baina bere posizio pribilegiatuaz neurritz kanpo baliatzen da amodio-afera bat izateko Melanie Isaacs izeneko ikasle mestizo neska gaztearekin. Unibertsitateko tribunalaran epaiketa nahiko inkisitorial baten ondoren, dimititzea behartua ikusten da. Lucy-ren etxaldean babesa hartzea erabakitzen du, eta Petrus ezagutzen du, bere alabari esku bat botatzen dion gizon beltza.

Azaroak 19, 21:30ean

LA VIE EN ROSE
(BIZITZA ARROSA KOLOREAN)



Edith Piaf abeslari frantsesaren bizitza erakusten digu; haurtzarora, gaztaroa eta gorespenera eramango dion bidea. Pariseko auzo marginaletatik, Nueva York-en arrakastara. Edith Piafen bizitza abestu ahal izateko eta biziraupenerako, bizitza eta maitatzeko borroka sutsua izan zen. Bere ahots magikoak, maitasun ospetsuk eta izen handiko lagunak, izar mundiala bihurtzea lortu zuten.

Azaroak 05, 21:30ean

THE BOAT THAT ROCKED
(EZKUTUKO IRRATIA)



60 hamarkadan Ingalterran emandako irratari piraten iraultzan inspiratua dago The Boat that Rocked. Filmeak, Iparraldeko itsasoaren erdian dagoen arrantza-itsasontzi batera igotzen gaitu, non irratia ilegal bate egoitza aurkezten digute; hau da, Radio Rock irratia. Eszenatoki berezi honetan hainbat gatazka eta maitasun harremanak suertatu eta erakutsiko zaizkigu. Protagonistak irratiko arduraduna, esatariak, disc-jockey-ak, eta britainiar ministro bat izango dira.

Abenduak 03, 21:30ean

EASY RIDER



Wyatt eta Billy kokaina salmenta handi bat egitea lortu eta gero, Nueva Orleansera habitzen dira Mardi Gras Inauterietan parte hartzeke asmoarekin. Motorra erosi eta bidaiari ekingo diote, bidean estatu-batuak gizarteko hainbat arpegi ezagutzen dituzte. Hippie batekin egingo dute topo, eta honek bere komunitatea ezagutzera eramango ditu. Ondoren, beste inauteri batean, baimenik gabe parte hartzen dute. Hori dela eta, gartzelan amaitzen dute. George Hanson, abokatu alko-holiko bat ezagutuko dute.

Emateko ezintasuna da nire egarria

Eusteko trebetasuna, nire pobrezia

Aspaldi ikusi nituen filme bateko esaldiak dira. Ez dizuet esango zeinetan esaten diren, bizitza osoa pelikula ikusten pasa dezazuen aurkitu arte. Hori, noski! niri eragin zidaten beste eragingo dizuela aurrez ontzat emanik.

Ez du inporta, hauek edo beste esaldi batzuk izango dira, edota betirako itsatsirik geratzen zaizkigun irudiak, musikak, gidioiak, lekuak...hainbat eta hainbat aukera salako argiak itzali eta gero, zine pantaila horrek gure aukerak altxatu eta geure barnera eraman gaitzan, kanpoaldera, hara, urrutira, tapiz magiko bat bailitzan.

Urriaren 8an gaueko 21:30ean itzaliko dira berriro argiak, eta dena desageratuko da, pantaila izan ezik. Pantaila hori ate bat bilakatu da, barrura sartzeke gonbitea luzatzen digun ate irekia.

Zin egiten dizuegu, gabonak arte aukeratu ditugun filmeak behintzat, merezi duten detaile eta bitxikeriaz gainezka daudela, bitxikeriez, beno, guk zoriontasunez beteriko pelikula direla esango genuke. Begiratu nahi baldin badituzue gure web orrialdean begiratu ditzakezue: www.okendozinema.org

Aurreko urteetan bezala, bi astean behin elkar ikusiko dugu, ostegunetan gaueko 21:30etan, esan bezala, urriaren 8tik aurrera.

Donostiako Zinemaldian filme betekada hartu dugun arren, ez dugu ikusi ez ditugunak ikusteko gogorik

galdu, ezta txunditurik utzi gaituzten pelikula horiek berriro ikustekorik ere. Hauek zuekin batera ikusi nahi ditugu berri.

Kultur Etxeko leihatilan ostegunetan elkar ikusteko gogoz gaude, herriko jendearekin elkartzeko eta zinemaldiko glamourra albo batera uzteko desaeatzen. Glamour pixka bat ondo dago, batez ere berria bada, baina bederatzi egun bertan igaro ondoren, zalantzarik gabe esan beharko, zeinen ondo gauden gure herrian!

Ai Udazkenean, zenbat gauza goxo... Okendo Zinema taldeak berriro filmak eskainiko dituela adibidez.

Hurrengo ostegunetan elkar ikusiko dugu, eta ondoren, filma komentatzeko potetxo bat hartu beharko, bederen!

Ah! niki eder-ederrak egin ditugu. Eta jakizue tirada bakarra egingo dugula. Ui, ui, ui, hau da harrokeria! Nor da ba etorkizuna iragartzeko gai...! Ez daude asko, ala gutxi daude, gauza bera da, alegia, baina ez da berdina... beno, beno. Orbela belardandana daude salgai eta ostegunetan, hilaren 8an, Kultur Etxera bertara eramango ditugu.

Laster arte

Okendo Zinema Taldea

Egunero

Erakusketa

ISLA BISUALAK izeneko erakusketa. Oscar Pozosen argazkiak. Jalgin, egun osoan.

Osteguna, 8

Zinea

BUSCANDO UN BESO A MEDIANO-CHE filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Osteguna, 15

Hitzaldia

GURASOAK SEPARATZEN DIRENEAN hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Ostirala, 16

Kontzertua

PLASTIC taldearen emanaldia. Rocka eta brit pop akustikoa jorratzen dute. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 17

Antzerkia

ATE-JOKA antzezlanaren Txalo produktzioen eskutik. Sarrera 10 euro. Kulturetxean, 20:00etan. EUSKARAZ.



Ipuin kontalariak kulturetxean

Pello Añorga ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 4, 5, eta 6 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egongo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Denak puntu-puntu hasiko dira.

ASTEARTEAN, 6AN, 18:00ETAN
HAURREN LIBURUTEGIAN
EUSKARAZ



Antzerkia

PAREJA DE TRES antzezlanaren Txalo produktzioen eskutik. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan, GAZTELANIAZ.

Igandea, 18

Zinea

CHER AMI haurrentzako euskarazko filma. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Oharrak

Helduen antzerki taldea

Landaberri Antzerki Eskolak jakinarazi nahi du helduen talde berri bat sortu dela. Talde hau ostegunetan bilduko da 19:30etik 21:00etara. Oraindik plazak badaudenez, interesa dezutenok deitu 943 371448 telefonora informazioa jasotzeko edo apuntatzeko. Euskaraz izango dira eskolak, beraz, oso egokia da euskara ikasten ari zarenontzako, eta erdoiltzen utzi nahi ez duzenentzat.

Txokotako argazkiak

Udaran, uztailea eta abuztuan, Ttakunek antolatutako txokotan egondako haurren argazkien CDak eskuragarri daude dagoeneko Amaran ludotekian (Ola kalea 1). Orduetgia: 17:00etatik 20:00etara.

Martija anaiei omenaldia

Urriaren 17an, omenaldia egingo zaie urtetan Sasoeta-Saustatxo futbol taldeko entrenatzaile izan diren Jose eta Iñaki Martija anaiei. Antolatuak 1978 eta 1992 urteetan zehar talde ezberdinetan parte hartu duten jokalariek bildu nahi dituzte. Horretarako, blog bat argitaratu dute, www.loschicosdemartija.blogspot.com. Bertan, omenaldian nola parte hartu azaltzen da. Beraz, Martijatarren mutilak

izan zaretenok animatu eta sartu blogean, urriaren 10era arte duzue izena emateko.

Oztabide elkarte loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzotarreri jakin arazten die eguberri-tako loteria salgai dagoela. 1982 zenbakia da eta 3 euroko loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan eta COVIRAN supermerkatuan erosi ahal izango dituzue. Zalantzak argitzeko: 62718225 (Joseba) edo 661068301 (Pili).

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztekoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingen da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Xumela korua martxan

Xumela koruaren lehen entsaioa urriaren 5ean izango da, beti bezala Landaberri BHI egoitzan eta arratsaldeko 19:30ean. Interesa duzenok, bertara azaltzea besterik ez duzue. Animatu eta etorri kantatzera!

Eskutitzak

Poltsa (plastikozkoa) edo bizitza?

Hipermerkatuetan-eta plastikozko poltsak erretiratzeko ari direla-eta, produktu-banatzailerak handi batzuek sekulako kanpaina mediatikoa sustatu dute. Poltsen gehiegizko erabilerak planetaren bizitzari zenbat kalte egin diezaiokkeen ikusarazi nahi omen diote kontsumitzaileari, eta horretarako nahiko telebista-iragarki apokaliptikoak ere prestatu dituzte.

Urtetan defendatu dugu behin bakarrik erabiltzeko eta ondoren botatzeko produktuen erabilera murriztu beharra dagoela. Areago, hipermerkatuetan-eta poltsak neurririk gabe banatzea espresuki kritikatu dugu behin baino gehiagotan. Beraz, kanpaina hau ondo iruditu beharko litzaiguke; ekologiston tesiak gero eta gehiago onartzen diren sintomatizat ere jo genezakeen. Alabaina...

"Alabaina, zer? Honen kontra ere jo behar al duzue?" Ez, baina kate handiak dira, neurri handi batean, gaur egun indarrean dagoen kontsumo ereduaren ezarri dutenak. Eta orain, berriz, Al Gore ekologista

"erradikala"ren plantak egiten al dagoz? Gauzak horrela, kanpaina ikuspegi kritikoa minimo baten bahetik pasazteko ezinbestekoa iruditu zaigu.

Kanpainaren mezuak bi zati ditu. Lehenengoan, zera dioskute: gutako bakoitzak urtero 280 poltsa inguru erabiltzen duela; poltsok desegin gabe 400 urte ere iraun dezaketela, eta, bien bitartean, espezie askotako arrain, hegazti eta ugaztunak hil ditzaketela. Eta hori guztia egia da. Dena dela, harrigarria ere bada kate handiak orain arte plastikozko poltsak sor dezaketean kalteaz konturatu ez izana. Baina, tira, esan bezala, kanpainaren mezuak badu bigarren zati bat, kontsumitzaileari zuzen-zuzenean dagokiona. Mezuaren bigarren zatia honela laburbil daiteke: "Aizak/n, izan hadi arduratsua, errafiazko poltsa erabili eta ez jarraitu ingurunea izorratzen".

Eta, mezuaren lehenengo zatia ez bezala, bigarren hau zeharo faltsua da. Izan ere, ezin eutsizko kontsumoari dagok kontsumitzailearen esku, kate handien esku baizik, hau da, orain telesermoilari gisa agertzen zaizkigun horien esku. Kontuan izan behar da

kateak izan direla, fabrikatzaileekin batean, gehiegizko bildukin erabilera sustatu dutenak. Esaterako, haiek izan dira erabilera bat baino gehiagoko botilak baztertu dutenak, desagertzaraino baztertu ere. Eta orain al dagoz kontsumitzaileak plastikozko hondakinak murrizteko aukera baduela esaka? Ez, jaun-andreok, kontsumitzaileak behin bakarrik erabiltzeko eta botatzeko botila baino ezin du aukeratu, ez dagoelako besterik. Izan ere, horretarako asmatu zuten puntu berde delakoa. Horren bidez, kontsumitzaileak berak ordaintzen du erabilera bakoitzeko botila, eta kate handiek eta fabrikatzaileek, berriz, aurrezten dituzte botila zaharrak biltzeak, bolada batez gordetzeak, fabrikara garraiatzeak eta berriz erabiltzeko moduan jartzeak sortuko lituzketen gastuak. Gainera, kontsumitzaile zintzoa baldin bada, botila berziklatze-erabileraren sartuko du, doan sartu ere, horren kontura erabiltzen bakarrek botila berri bat egin dezaten. Beraz, negozio biribila.

Kate handiek zera dioskute: "Poltsa uko egiten badiezue, urtean 800/900 gramo plastikozko zabor gutxiago sortuko dituzue". Baina, aldi berean,

astero-astero, plastikozko ontzi itxuran, batzuek beste kilo eta erdi zabor saltzen digute. Halaber, hipermerkatuetako apaletan era guztietako plastikozko aurki daitezke... PE, PP, PS, PET, PE, AD, PE, BD... Are gehiago, oso diru gutxiren truke, plastikozko zabor hori guztia zaborretara botatzeko plastikozko zabor-poltsak ere saltzen dizkigute.

Kate handiek haragia Errumaniatik ekarri dute; barazkiak, Afrikatik; arrainak, Indiako Ozeanotik; esnekiak, ez dakigu zehatz-mehatz nondik, eta ura ere, saltokitik milaka kilometro-ra dagoen iturri batetik. Ezin eutsizko eredu bati jarraituta, bertako ekoizle eta bertako dendariak ere desagertzeko zorian jarri dituzte. Orain, baina, kanpaina berri batekin dagoz eta zera sinistatzen nahi digute: eredu horrek sortzen duen arazo ekologikorik handiena kutzazainek banatutako ditxosozko poltsak direla, kontsumitzaileak neurri gain erabiltzen dituelako.

Une honetan, kontsumoak krisian dago eta, alde horretatik, ulergarria ere bada merkatu-arduradunek kanpaina hau abiatu izana. Batetik, poltsen gastua (puntu berdea barne) aurrezten dute eta, bestetik,

kate handiek ukitu berde bat ematen diote. Baina erantzukizuna kontsumitzaileari leporatzea ez zaigu bidezkoa iruditzen. Kate handiek ingurune alorrean fundamentuzko zerbait egin nahi badute, bada-kite zer egin behar duten: neurri gaineke bildukin murriztu, erabilera bat baino gehiagoko botilak erosteko aukera eman, plastiko kutsagarrienak material samurragoekin ordezkatu; bertako produktuak sustatu eta abar. Etekinak murriztuko litateke, jakina, baina gure kezka "planetaren bizitza" bada... aitortu beharra dago aipatutako neurriekin alderatuta poltsena anekdota hutsa dela.

Berriro esango dugu, badaezpada: poltsak erretiratzeko edo murrizteko ez zaigu gaizki iruditzen, are gehiago, bat gatzoz; Baina fundamentuzko pauso gehiago eman ezean, propaganda hutsa da. Ez diezagutela poltsak basoa begi-bistatik ezkuta. Basoa geratzen den neurrian, behintzat; izan ere, igoal bota dute hipermerkatu bat eraikitzeko.

Juan Mari Beldarrain
Eguzkiko kidea

“Abestea izan da niretzat zailena”

Nerea EIZAGIRRE

Laz Euskararen Maratoian oholtza gainean ikusi genuen Jokin Ayerregaray, aurtan urriaren 9tik aurrera aktore lanetan ikusi ahalko dugu ETB kateak estreinatuko duen *Go!azen* telesailean. Film musikalaren arrakastaren ostean, 12 kapituluko telesaila grabatu dute Pausoakak eta ETBk. Ostiraletik aurrera, Jokin Aitorren paperean ikusiko dugu Basakabin abenturak izaten, baita abesten eta dantzatzeko ere.

Nolatan aurkeztu zinen telesaileko hautaketa probara?

Antzerki eskolara deitu zuten hautaketa egingo zela eta ea norbait animatzen zen galdezten.

Hiru pertsonak baietza eman genuen eta ni hartu ninduten.

Nolako probak egin zenituzten?

Kantatu, bost edo sei kanta izan ziren; gero momentuan musika jarri eta dantzatu behar izan nuen. Eta azkenik, etxean prestatutako testu bat antzeztea.

Proba bakarra izan al zen?

Ez, lehenengoan hautagai guztiak ikusi zituzten. Aukeraketa egin eta bi mutil geratu ginen paper hori egiteko.

Berriro ere proba guztiak egin behar izan genituen eta ni aukeratu ninduten.

Beraz, hasieratik bazenekien zein paper egin behar zenuen?

Bai, gainera, mutilentzat paper bakarra zegoen.

Eta nolakoa da zuk jorratu duzun papera?

Aitor mutil gaztea da, lotsatia. Zuzendariaren iloba da eta seminariara doa. Beraz, bere komerik izango ditu, lagunekin, osabarekin, etab.

Eta grabaketa nolakoa izan da?

San Pedroten hasi ginen eta irailaren hasieran bukatu genuen.

Astelehentik ostiralera, platoon zenean, Miramonen goizeko zazpietatik arra-

tsaldeko zazpietara egoten ginen eta Azeptian ginenean zortzietatik zazpietara.

Beraz, egun batetik bestera ikasi behar zenuten gidioia?

Hasieran lehenengo sei gidioiak bidali zizkiguten ideia bat egiteko. Baina gero gidio horiek moldatu egiten ziren sekuentziak eta orduan eguneroko ematen zizkizuten zuk ikasi beharreko sekuentziak. Esate baterako, platoan ginenean zortzi edo hamabi sekuentzia ziren egunean.

Eta arratsaldetan gainera, dantzak ikasteko geratzen ginen. Azkenean asko da ikasteko.

Arratsaldetan dantzak prestatzen zenituzten, baina abestiak, noiz?

12 kapitulu 60 egunetan grabatu behar ziren eta denboraz

justu. Beraz, dena batera egin dugu.

Platoan ginen bitartean, banaka joaten ginen estudioara ahotsa grabatzera. Sekuentzia batean zu agertzen ez zinala, ba bost minutu horiek aprobetxatzen ziren ahotsaren grabaketa egiteko.

Eta nolakoa izan da abestea?

Abestea izan da niretzat zailena. Txikitik abesbatza abestu nuen baina hortik aurrera...

Gainera, grabaketa estudioan sartu eta zure ahotsa grabatzea... inoiz egin ez duzun gauza izanik, zaila da.

Baina asko lagundu digute. Aktore zuzendaria Ainhoa Aierbek kantua ere jorratzen du eta ahal izan duen guztian lagundu digu. Gainera, Yoli Pascualena aktorea ere musikaz bizi da eta hark ere asko lagundu digu.

Azeptian ere egon zineten eta arazoak egon ziren...

Azeptiraia joatea guretzako hoberena izan zen, arratsaldetan ez baitzegoen entsegurik. Goiza eta arratsaldea genuen grabaketa egiteko eta guztia lasaiagoa zen.

Gainera, jende pila zetorren ikustera, txalo egiten zuten eta horrek animatu egiten gintuen.

Arazoak izan genituen zaratarekin ezin baita grabatu. Komentua errepide ondoan dago eta errepidea moztu behar izan zen, autoen zarata ekiditeko.

Baina okerrago izan zen, kotxeak klaxona jotzen hasten zirelako eta kriston zarata sortzen zutelako. Gainera, ondolan lanak zeuden eta horiek ere zarata egiten zuten. Alde horretatik konplikatua izan da.

Nolako harremana izan duzu beste aktoreekin?

Gure artean harreman ona egon da. Afariak egin ditugu, Arcachoneko Aquaparkera joan ginen... Grabaketa bukatu eta zerbait hartzera joaten ginen.

Beti saiatu gara ateratzean lanarekin deskonektatzen, ordu asko baitira eta azkenean beti gauza bera buruan izanik nekatzen zara.

Alde horretatik, talde guztiarekin, bai aktore, bai lantaldearekin harreman ona izan dut.

60 egun lanean, elkarrekin, beharrezkoa da harreman ona izatea.

Eta telesailan agertu ostean, jarraitzaileak izango dituzu, noski?

Oraindik ez dakit nola izango den. Baina gauza ondo eramatea espero dut.

Grabaketa egunetan jendea agurtu dut, baina ez aktore nagusiek beste. Izugarria zen,

esate baterako, umeak kotxeen atzetik korrika ikustea edo kafe bat hartzera joan eta jendeak geratzea.

Ni berria izateaz aprobetxatu nintzen lasai-lasai egoteko.

Zein da *Go!azen* fenomenoaren hurrengo pausua? Esan badaiteke.

Lehenengo ikusi beharko da jendea gustura dagoen jarraitzeko. Badaude proiektu batzuk baina ez dira oso fin-koak.

Fenomenoak aurrera egiten badu, jarraitzeko asmorik?

Printzipioz bai. Baina gogorra izan da udan lan egitea. Orain deskantsatu behar da.

Hasieran ilusio askorekin hasten duzu proiektua, baina bukaerarako oso nekatua zaude. 60 eguneko presioa asko da.

Esperientzia ona izan al da?

Bai. Gainera, asko ikasten da. Nik, esate baterako, ez nuen ikusia nola egiten zen lan telesaila batean.

Ikusle bezala egon naiz programa batzuetan, baina ez dauka zer ikusirik. Harrigarria da zenbat jende dagoen planoan lan egiten, aktoreaz aparte eta ikusten ez direnak, errealizadorea, kamarak kontrolatzen dituztenak. Jende pila bat dago. Telebistan aktoreak ikusten dira, baina kamara atzean 50 pertsona egon daitezke.

Eta gainera gero jendeak ez du sinesten, ez dio garrantzirik ematen. Baina oso bitxia da. •



Go!azen fenomeno

Go!azen 2008ko gabonetan ETB 1en estreinatutako film musikala da.

Basakabira udaparran joandako gazteen abenturak aurkezten zizkigun.

Telesaila

Orain, urte bete pasa da eta gazteen bigarren urtea da Basakabin. Urtean zehar gertakizun ugari bizi izan dituzte eta gauzak ez dira berdin izango.

Hau guztia, telesail moduan ikusteko aukera dago urriaren 9tik aurrera.

Pelikulan parte hartu zuten aktorez gain, telesailari ukitu berri bat emango

dioten hainbat pertsona berri agertuko dira, hala nola, Jokinek egiten duen pertsonaia, Aitor.

Eta pelikulan gertatu bezala, ikusleentzat oso eza-gunak izango diren kantuekin tartekatuko dira udalekuko ikasleen bizipenak.

Aurre estreinaldia

ETB 1en urriaren 9an estreinatuko duen telesaila, urriaren 7an aurre estreinaldi bat egingo dute Donostiako Antzoki Zaharrean.

Bertan izango dira telesailaren parte hartzen duten aktore guztiak, baita Jokin ere. •